

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko martxoak 1 · 1303 zenbakia

ETORKIZUN DOTORERAKO PRESTATZEN



ATE IREKIAK

MARTXOAK 13

Asteazkena, 18:00

Eman
izena!




ArmeriaEskola^x



AUPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

NEINOR STORE: Bidebarrieta, n° 6

900 11 00 22 • neinorhomes.com

ATE IREKIAK



MARTXOAK 6
GOI MAILAKO
ZIKLOAK

17:00



GOI MAILAKO ZIKLOEN ETA ESPEZIALIZAZIOEN ESKAINTZA:




- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA



- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- + Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.



ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN



- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | ldazkaritza@uni.eus | [uni.eus](https://www.uni.eus)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Azokak izan dira protagonista azken hiru egunotan. Batetik, Lanbide Heziketaren VI. Abian Azoka izan dugu Ipuruia futbol zelaiko aparkalekuan. Eta, bestetik, Errebal Plazak neguko aukeren azoka jaso du. Gu bietan izan gara eta irudiak jaso ditugu YouTubeko kanalera igotako bi bideotan.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundiak

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Jendaurrean euskaraz idatzi eta mintzo direnen artean, gehiengo argia da Israelgo estatuaren aurka gogor mintzo dena; gehiengoa, halaber, ideia gutxi-asko ezkertiar edo progresisten aldekoa; gehiengoa independentziaren -edo, gutxienez, autodeterminazioaren- aldekoa ere; eta gehiengoa, akabo ba!, euskaltzalea. Baina ez diegu irizten diotenaren aurka agertzeko eskatuko, ezta? Ez dut ulertzen noren ongietorriaren falta sentitzen duten bestelako ideiak dituztenek, euskara erabiltzeko benetako gogoia baldin badute, ideia horiek euskaraz adierazteko. Hain mingarria baldin bazaie ideologia horiek agertzea euskararen jabe bakar gisa, ez al dute pentsatu, bestelako ideiak dituztenek, kontraerasorik efikazena euskara barra-barra eta fin-fin erabiltzea izango litzatekeela?

JUAN LUIS ZABALA, zutabegilea

Bilioidunek zerga oso altuak ordaintzen dituzten Dani-markan, mirestuak ere badira horregatik. Kaletik euren buruaz harro ibiltzea dakar horrek, beste leku batzuetako bilioidunak bizkarzainekin ibili behar izaten dutenean. Zergatik? Munduko bilioidun askok dirutik aparte ez dutelako ezer; horregatik ez daude ezer emateko prest. Modu horretan huts-hutsik geratuko zirelako.

SIR PAUL COLLIER, ekonomilaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OTXIN → Antzinako txanpon bat. "Otxiñak egitten dagoz gerriakin, ez dalako ferixa txarrik danentzako".

OTXINDU → Aberastu, dirua egin. "Ameriketan otxindu eta gero herrira etorri eta etxe haundi bat egin eban".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 1
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 2
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
DOMEKA 3
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 4
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 5
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria del Puerto Barredo Arias**. 90 urte. 2024-02-23.
- **Nicolas Cervero Hernandez**. 89 urte. 2024-02-26.
- **Alejandro Gisasola Iturricastillo**. 80 urte. 2024-02-26.
- **Jose Maria Telleria Alberdi**. 87 urte. 2024-02-26.
- **Santiago Hormaetxea Mallagaray**. 90 urte. 2024-02-27.



Eibar TEK Tokiko Energia Komunitatearen parte izateko izen-ematea zabaldu dute

Aste honetan udaletxean egindako prentsaurrekoan azaldu zuten Eibar TEK (Tokiko Energia Komunitatea) sortu berria zertan den Jon Iraola alkateak, Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiako Ingurumen diputatuak, Alberto Albistegi Ingurumen zinegotziak, Ana Aranberri Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ordezkariek eta Edinorren ordezkariek. Eibar TEK Eibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jasangarritasun Departamentuaren eta Next Generation europar funtsen lankidetzari esker sortu da eta, esan dutenez, “tokiko energia-komunitate honek anbizio handiko plan bat du, energia-autokontsumoko komunitate zabal bat eratzeko”. Horretarako, panel fotovoltaikoak jarriko dira eraikin publikoen teilatuetan (Amañako eta Arrateko Andra Mari herri ikastetxeetan eta Portalean), eta hortik sortzen den energia herriarrek erabili ahal izango dute. Proiektuaren arabera, 1.093 m²-ko

azalera erabilgarrian, gutxi gorabehera 163 kW-ko edukiera duten 364 eguzki-panel jarriko dira, eta 246 erabiltzaile inguruk komunitateko kide izateko izena ematea da ekimenaren helburua, “udalerriko etxe partikular eta denda txikiak, besteak beste, proiektutik onura aterata ahal izateko”.

Informazioa emateko hiru hitzaldi egingo dira martxoan

Ekimenari buruzko informazioa herriarrei azaltzeko bi hitzaldi egingo dira: martxoaren 12an, 18:30ean Coliseo antzokian; eta martxoaren 14an, 12:00etan Errebal Plazan (aretoan). Eta hirugarren hitzaldi bat antolatu dute, bereziki establezimenduei begira. Martxoaren 19an izango da, 15:00etan Errebal Plazan. Horrekin batera, informazio gehiago nahi duenak www.tekeibar.eus webgunera jo dezake, edo 900 859 695 telefonora deitu, astelehenetik barixakura, 10:00etatik 18:00etara.

Zuhaitz Eguna apirilaren 6ra atzeratzea erabaki dute, eguraldiarengatik

Astebururako iragarrita dagoen eguraldi txarraren eraginez, zapatuan, martxoaren 2an egitekoa zen Zuhaitz Eguna bertan behera lagatzea erabaki dute antolatzaileek. Eibarko Udaleko Ingurumen Sailak, Eibarko Baso Biziak elkar-tearekin eta Lurguia Fundazioarekin elkarlanean antolatuta zuten zuhaitz-landaketa aurrerago, apirilaren 6an egingo dela eman dute aditzera. Azken urteetan egiten ari den ekimena eibartar guztiei zuzenduta dago, eta udal-lursailetan baso autoktonoa berreskuratzea da helburua. Landaketa Urkoren magalean, Pagaegikortako lursailen egingo da.



Posta bidez bozkatzeko arreta-zerbitzua Bilgunean

EAEko hauteskundeetarako posta bidezko botoa apirilaren 11ra arte eska daiteke (botoa emateko epea, berriz, apirilaren 17an amaituko da). Eibarko EH Bildutik jakinarazi digutenez, martxoaren 11tik aurrera, Bilgunea (Bista Eder kalea, 2) irekita egongo da, posta bidezko bozka egiteko eta zalantzak argitzeko. Astelehen, martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 19:30era zabalduko dute. Eta eguaztenetan, 11:00etatik 13:00era.



Hasi dira Mekolako lehen igogailua ipintzeko lanak egiten

Orain dela egun batzuk hasi ziren Mekola kalean igogailua ipintzeko lanak egiten. Hain zuzen ere, lehen igogailurako metalezko estruktura jartzen aritu dira, horri eutsi beharko dion lurzorua egonkortzeko lanak amaitu eta gero. Igogailuak Berdintasunaren Pasealekutik izango du sarrera eta, pasabide bati esker, lehen eskailera-zatia amaitzen den tokiraino igoko du jendea.



Pintxo-pote bereziarekin agurtuko dute gaur arratsaldean Neguko Aukeren Azoka

Gaur iluntzean itxiko ditu atiak eguaztenaz geroztik Errebal Plazan dagoen Neguko Aukeren Azokak, baina aurretik, ekitaldia agurtzeko, 18:00etatik 20:00etara, Trinkete tabernak zerbitzatutako pintxo-potea egingo da Errebalen bertan,

Sofia eta Ander talde akustikoaren zuzeneko musikarekin lagunduta. Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) Udalarekin elkarlanean antolatutako neguko merkealdi azokaren edizio honetan 26 establezimenduk hartu dute parte.

Errigoraren bi otar zozketatuko ditugu gure webgunearen bitartez

Astelehenean hasi zen Errigoraren udaberriko kanpaina, *Eutsi gurea-ri!* lelopean. Eskaerak martxoaren 13a baino lehen egin behar dira, Internet edo telefono bidez (848 87 12 23). Eibarren maiatzaren 14an egingo da banaketa, Untzaga zine zaharrean, 17:00etatik 20:00etara. Kanpainaren hasierarekin batera, Errigora proiektuaren bi otar zozketatuko ditugu, www.etakitto.eus webgunean sartuta, bertan aurkituko duzuen formularioa betetzen duzuenen artean. Martxoaren 13an amaituko da zozketan parte hartzeko epea.



Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoak apirilaren 23an Eibarren

Debemenetik jakinarazi digutenez, nekazaritzako ibilgailuen aldiko azterketa teknikoetako hurrengo saioa apirilaren 23an egingo da Eibarren. Goizeko 09:00etan hasiko dira IAT azterketa horiek Azitaingo industrialdeko Greyhound-en instalazioetan. Kontuan hartu behar da Unitate Migikorra bakar-bakarrik egun eta toki horretan egongo dela, eta gehiagotan ez.



Hondakinen inguruko kontzientziaziaio ikasleekin lantzeko ekimen berria

Hondakinen gaikako bilketa areagotzeko asmoz, sentsibilizaziorako ekimen berria ipini du martxan Mankomunitateak, eskualdeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Aste honetan La Salle Azitainen egon dira, ikastetxetik gertuen dagoen edukiontzi grisaren

karakterizazioa egiten eta, ikastetxetik azaldu digutenez, “errefusiko edukiontzian plastikoa, organikoa, beira... denetik azaldu da, proportzio oso handian, gainera. Horrekin batera, hondakinak ongi sailkatzearen garrantzia erakutsi digute”.

Hasi da ‘Berrerabili eta berrasmatu’ tailerretarako aurrematrikulazioa

Udalak antolatutako ‘Berrerabili eta berrasmatu’ tailerren bosgarren edizioa egingo da apiriletik ekainera, eta gaur zabaldu da aurrematrikulak egiteko epea. Hamar tailer eskainiko dira guztira, Eibaroko denda eta erakundeen laguntzarekin. Egunero erabiltzen ditugun objektuak eta materialak konponetzen, berrerabiltzen, birziklatzen eta berrasmatzen ikatea bilatzen dute antolatzaileek, “haien bizitza baliagarria luzatzeko eta, horrela, hondakin-kopurua murrizteko”. Martxoaren 14ra arte egongo da aurrematrikula egiteko aukera, Pegoran edo Udaleko webguneko formularioaren bitartez.



Arragueta lanen inguruko okerra zuzentzen

Arragueta kaleko obra-hondakinak garbitzen hasi direla-eta, aurreko asteko aldizkarian kaleratu genuen albistean emandako informazioa ez da zuzena: izan ere, lan horiek egiteko Udalak bide subsidiarioari jarraitu diola esaten genuen, baina azkenean ez da hala izan eta, beraz, orubearen jabeek ordainduko dituzte garbiketa-lanak. Alkateak azaldu digunez, egin beharreko hainbat tramite tarteko, nahi baino gehiago atzeratu dira lanak.



Euriari ere aurre egin zioten pentsionistek asteleheneko elkarretaratzean

Astelehenero bezala, aste honetan ere pentsio duin eta publikoen aldeko elkarretaratzea egin zen Untzagan, Eibarko Pentsiodunen Taldeak antolatuta. Euria gogotik botatzen ari zela eta, udaletxeko arkupeetan izan zen ekitaldia, eta ehundik gora lagun elkartu ziren.

Martxoak 8ko egitaraua martxan

Martxoa iritsi da azkenean eta, horrekin batera, Martxoaren 8ko lantaldeak antolatutako egitarauaren hasiera. Planifikazio zorrotza eginez eta konpromiso irmoa hartuz, emakumeen eskubideen aldeko borroka ospatzeko ekitaldiak prestatu ditu Martxoak 8ko kolektiboak (Arrate Kultur Elkarte, SD Eibar Fundazioa, Eibarren Akebai, Neledantza, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunea, Pagatxa, Berdintasun Zerbitzua-Andretxea, ...eta kitto! Euskara Elkarte eta hainbat norbanako).

Zaintzak, denon bizitzak erdigunean lelopean diseinatu dute aurtengo egitaraua, eta jarraian dituzue aste honetarako prestatutako ekitaldia (hurrengo aleetan jarraituko dugu hilabete osoan zehar egingo diren jarduera guztien berri ematen).

Gaur bertan, martxoak 1, estreinatuko da Martxoak 8ko egitaraua Eibarren, Portaleko areto nagusian emango duten "Cinco lobitos" filmarekin. Zine-forum feminista saioa izango da (gazteleraz), publiko guztiarentzat irekia eta 18:30ean hasiko da. Pagatxa emakume elkarteak Izaskun Rodríguez Elkoro dinamizatuko du solasaldia. Amatasunaren eta zaintzaren haritik tiraka sortu zuen Alauda Ruiz de Azua barakaldarrak "Cinco Lobitos" film laudatua. Laia Costa du protagonista, ama izan berri den eta nola jokatu behar duen ez dakien Amaiaren paperean.

"Zaintzaren arkitekturak" eta "80 amandre"

Datorren asteko eguaztenean, martxoak 6, "Zaintzaren arkitekturak" liburua aurkeztu eta, ondoren, hitzaldia emango du Irati Mogollon Garcia ikerlari lezoarrak (euskaraz). Zahartzaroz, zaintzaz eta etxebizitzaz jardungo du, ikuspegi feminista sistemikotik. Zaintzaren arkitekturak pertsonen autonomia errazten du, haiek mugitu ahal izatea ahalbidetzen du, aurkitzea, euren beharrak asetzea, lortu ahal izateko hamaika traba gainditu behar izan gabe. Horretaz mintzatuko da Mogollon luze. Ekitaldia Andretxean izango da, 18:30ean (euskaraz), eta bertan Eibarko *Poesía... eres tú* taldekoek ere hartuko dute parte.

Martxoaren 7an, eguena, Dorleta Kortazar Alkozek helduentzako ipuin-kontaketa saioa eskainiko du (euskaraz) Andretxean, 18:30ean. "80 amandre" ikuskizunean lau

emakumeren istorioak kontatzen dira. Bidaia bat egiten da 30eko hamarkadatik gaur egun arte, eta denbora tartetartean emakume horien bizipenak kontatzen dira, bizitzan zehar jasan dituzten biolentzia ezberdinak azaleratuz. Biolentzia horiek intentsitate ezberdinetakoak izanik, tartean zaintzaren gaia ere oso presente dago; izan ere, esan daiteke protagonistak zaintzari emanak bizi izan direla, horrek dakarren guztiarekin.

Dorleta Kortazarrek azaltzen duenez, "gure amonen istorioak atzean utzi ditugula uste izan arren, aspaldi-koak direla iruditu arren, ipuinek lagundu diezagukete konturatzen gaur egun gure artean badaudela oraindik horrelako errealitateei aurre egin behar dieten emakumeak, egoera zaurgarrian daudenak, eta iragana direla uste ditugun horiek oraindik ere oraina izaten jarraitzen dutela".



Zine Forum feminista eta solasaldia

"Cinco Lobitos"

Martxoak 1, barixakua
Portalea - 18:30

Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro (Pagatxa)



Liburu aurkezpena eta hitzaldia

"Arquitecturas del cuidado"

Irati Mogollón García

Martxoak 6, eguaztana
Andretxea - 18:30

Poesía eres tú taldearen kolaborazioarekin



Helduentzako ipuin kontalaria

"80 amandreak"

Dorleta Kortazar Alkoz

Martxoak 7, eguena
Andretxea - 18:30



Euskaltzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez. Umeen euskara saria ematen (1959-11-08)

Kontxa euskara klaseak ematen hasi zen Kulturallean, eta egunean hamalau-hamabost ikasle izaten zituen. Klub Deportiboan, La Salle, Ikastolan, Udaletxean eta AEKn ere eman izan ditu euskara klaseak. Hasieran Euskara Batua ere ez zegoen eta erabiltzen zuen materialaz hitz egiten du.

Euskara klaseak herriko hainbat tokitan ematen

Kontxa Laspiur Zabala (1924)



Bergaran jaio zen, baina 4 urterekin etorri zen familia osoa Eibarrera eta eibartar sentitzen da (hizkeraz ere eibartarra da). Aita txistularia izan zen Eibarren errepublika garaian. Concharen anaia, Imanol Laspiur, euskaltzale ezaguna izan da. Concha ere euskaltzale amorratua izan da beti, eta 1963tik aurrera euskarako irakaslea izan da. 1963an klaseak ematen hasi zen, erdi ezkutuan, Eibarko Kulturala elkartean; gerora, hainbat urtez, AEK-ko irakasle izan da.

Kontxa Laspiurri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Nola hasi zinen klaseak ematen?] Niri deitu zidan Zubiaurrek, esanez nola klaseak eman beharko nituzkeela, jende gutxi zegoela euskeraz zekiena eta horrela hasi nintzen. Ta orduan giñan, ez dakit, Zabaleta, ta Amatiño ta, lau-bost bat giñan. Eta 41 lagunekin hasi nintzen [Hamen bertan?] Ez, Kulturalian. Kulturalian hasi nintzen. Ta, bueno, egun batian etortzen ziranak, hurrengo egunian ez ziran etortzen. Batez beste, 14-15 bat eukitzen nituen egunian (...) Eta harrezkero pasau dira pilla bat, 25 urte daramatzat ematen! Emon dot Deportivoan ere bai, eta emon dot La Salle behian, La Salle goian, ikastolan, udaletxean... Ta gero AEK-n, sortu zanetik AEK-n, eta oso gustora. Lastima agintariak ez gaituztela onartzen, hori da penagarria (...)

Gorka Ayora

Eibartarra

Berrikuntzako Ingeniaritza Duala

4. mailako ikaslea

Zergatik Ingeniaritza Dualaren Eskola?

Berrikuntzako Ingeniaritza Graduaren azken urtean zaude, zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?

Bi arrazoi nagusiengatik, alde batetik formakuntza dualak erakartzen ninduen, ezagutza praktikoa asko baloratzen dudalako eta aurretik ere, lanbide heziketako goi-maila ere eredu dualean ikasi bainuen Armeria Eskolan.

Bestetik, gradu honetan berrikuntzaren arlo desberdinak lantzen direnez, gaur egungo etengabeko aldaketan munduarentzat funtsezko erremintak eskaintzen zituela ikusi nuen.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Oro har ona, kontuan izanik bai eskolan eta bai enpresan formatzen garenez, denbora ondo antolatu behar dela, azterketetarako plangintza klabea da.

Zure espektatibak betetzen ari dira?

Hein handi batean bai, bai unibertsitatean, bai lanean.

Ze enpresatan ari zara garatzen zure profil profesionala? Ze proiektutan ari zara lanean?

Nire enpresa duala Copreci Koop. E., etxetresna elektrikoetarako osagaiak eta sistemak diseinatu eta fabrikatzen duen enpresa da, eta bertan ari naiz garatzen nire profil profesionala. Zehazki Produktibitate eta Garapen Industrialaren departamentuaren barruan, hainbat proiektutan laguntzen, bereziki intralogistikako proiektu berritzaile batean, AMR (Autonomous Mobile Robot) robotekin; zeinak automatizazioa eta elektronikaren esparruak lantzeko aukera eman didan.



Lan esperientzia izateko aukera eman dizu eredu dualak. Berrikuntza proiektuetan lan egin duzu. Uste duzu zure amets profesionalak betetzeko lagungarri izango dela?

Bai, batez ere enpresan parte hartzen nagoen proiektuen bitartez hainbat trebetasun garatu baititut (soft eta hard skills deituak). Honek gradua bukatu bezain laster aurkituko dudan lan munduan sartzeko erraztasuna aukera ematen dit.

Atzerriko lan egonaldia ere egin duzu

Bai, laugarren mailaren hasieran atzerriko egonaldia egiten dugu hamar astez. Nire dualeko enpresak, Coprecik, Turkian duen lantegira joan nintzen, lantegiko prozesu-teknikoari euskarria emateko. Nazioarteko proiektuen kudeaketan esperientzia ezin hobea izan da, prozesu-technikari korporatibo bezala maiz bidaiatu behar izaten baita, hainbat proiekturen ardura hartuz.

Gradu hau ikastera animatuko zenuke norbait?

Bai, formatu duala interesatzen bazaio eta ikasgaiak interesgarriak iruditzen bazaizkio gomendatuko nuke.

**Informazio
Saioa
Martxoak 5**



Etorkizun oparoa bermatzeko gakoa

Ipurua futbol zelaiko aparkalekuak Lanbide Heziketako VI. Abian Azoka jaso du azken hiru egunotan. Bertan, Debarreneko bederatzi hezkuntza-zentrok postuak jarri dituzte Lanbide Heziketa eta unibertsitate mailan eskualdean dugun eskaintza ezagutarazteko, eta milaka lagun gerturatu dira informazio bila. Aurtengo berritasun nagusia da unibertsitateek lehen aldiz hartu dutela parte azokan, aro berri baten hasieraren seinale.

SD Eibar Fundazioak anfitrioi lanak egin ditu hiru egun hauetan bere instalakuntzetan jaso duen Abian Azokan. Futbol taldearen fundazioak futboletik haratago dauden gaitan bere alea jartzeko egiten du lan. Hala nola, kultura arloan (Antzerki Jardunaldiak babestuz), berdintasunaren inguruan (Martxoaren 8ko lan-taldean dago), kirolean (herriko txirrindularitza-probak babestuz) eta euskararekin lotutako gaitan (Euskararen Baloia ekimena du martxan, besteak beste) eragiten du. “Futbol talde baten balio handiena bere afizioa da, bestela ez du izaterik. Horrek zorra sortu digu gure gizartearekiko eta zor hori ordaintzeko tresna da SD Eibar Fundazioa”, azaldu zuen Mikel Larrañaga SD Eibar Fundazioaren presidenteordeak Abian Azokaren aurkezpenean, eguztenean.

Eibarrek enpresa-gunea inau-



guratu du berriki Ipuruan eta, era berean, irakaskuntzarekin lotura duela zehaztu zuen Larrañagak. “Orain, azoka honekin, are nabarmenagoa da enpresak eta irakaskuntzak duten lotura, eta guretzat ohorea da ateak azokari zabaltzea”, aipatu zuen. Ate erraldoiak, hain zuzen ere, Debarreneko bederatzi hezkuntza-zentrotan postuak eta milaka lagun jaso baititu Abian Azokak iraun dituen hiru egunetan.

Armeria Eskola, Uni Eibar-Ermua, Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea (EOLHI), IMH Campusa, Kardala Akua-kultura, Meka Lanbide Eskola, Mutrikuko Institutua, Ermua-Mallabia Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea eta Debarreneko EHUren Eskola (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola atala eta Ingeniaritza Dualaren Eskola IMH Campus) izan dira standak jarri dituzten ikastetxeak.



Bisitariak lehen eskutik ezagutu ahal izan dute Debabarreneko Lanbide Heziketako ikastetxeen eta unibertsitateen eskaintza. EKHI BELAR

Eibarko ikastetxeak

Uni Eibar-Ermuakoez adierazi zigitenez, “Unian familia ezberdinak ditugu (informatika, jarduera fisikoak, merkataritza eta administratza), erdi- eta goi-mailako zikloak eta espezialitateak”. Martxoaren 6an ate-irekien jardunaldia egingo dute, baina eurentzat garrantzitsua da Abian moduko azoketan egotea. “Gure eskaintza zabaltzeko eta galderei eta zalantzei erantzuteko balio digu”.

Armeria Eskolakoek ere euren eskaintza aurkeztu zuten bertan. “Ezin dugu eskola guztia ekarri, makinak oso handiak direlako, baina ziklo bakoitzean egiten duguna erakusteko makina batzuk ekarri ditugu”, esan zigituten. “Ziklo industrialak ditugu: mekanizatua, elektrizitatea, elektronika eta mantenua. Armeria Eskolan erdi-mailako zikloan hasi eta goi-mailara jauzi egin dezakezu, eta espezializazioa egiteko aukera ere eskaintzen dugu. Eta zergatik

>>> Debabarreneko bederatzi ikastetxek hartu dute parte Abian Azokaren 6. edizioan, Lanbide Heziketakoak eta unibertsitateak

>>> Lehen aldia da unibertsitateek postua jartzen dutena, Lanbide Heziketarekin duten lotura berretsiz

hori? Inguruko industriaren eskarrei erantzuna emateko”.

EOLHI-khiru modulu eskaintzen ditu bere zentroan: sukaldaritza, informatika eta etxebizitzaren mantenua. “Normalean, tailerrak arratsaldetan izaten dira, eta goizetan ingelesa, gaztelera eta horrelakoak eskaintzen ditugu”, azaldu zigituten azokan. “Gure eskaintzaren berri

ematera etortzen gara azokara; baina, egia esan, Azitainen ikasle asko ditugu”.

Unibertsitateak lehen aldiz

Unibertsitateek lehen aldiz hartu dute parte Abian Azokan. “Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa banatu egin dituzte normalean, baina hori iraganeko ikuspegia da”, aipa-



Ikasleak txandaka sartu ahal izan dira azokan egun hauetan. EKHI BELAR

>>> Ikastetxeen eskaintza zabalak Debabarrenean dauden beharrei erantzuteko egiten den lana erakusten du

>>> Politikarien ustez, Lanbide Heziketaren eta unibertsitateen eskaintza berebizikoa izango da eskualdeko etorkizuna bermatzeko

tu zuen Fernando Tapia EHUko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordeak. “Paradigma aldaketa beharrezkoa da. Ikuspegi integratzaile eta osagarriaren alde egin behar da, eta horretarako ezinbestekoa da arlo bien arteko lankidetzeta”, bere ustez.

Zentzu berean egin zuen berba Kepa Altube Ikaslan Gipuzkoako

kudeatzaile eta koordinatzaileak. “Lanbide Heziketa eta unibertsitatea hurbiltzen goaz. Gero eta gehiago dira Lanbide Heziketatik unibertsitateara jauzi egiten duten ikasleak, eta baita alderantzizko bidea egiten dutenak ere. Hau da, unibertsitatean karrera amaitu eta Lanbide Heziketan espezializazioa egiten dutenak”, bere berbetan.

Debabarreneko ikur

Historikoki, Lanbide Heziketak garrantzi nabarmena izan du Debabarrenean. Industriari oso loturiko eskualdea izan da gurea eta Lanbide Heziketa ere arlo horri lotu izan zaio normalean, baina gauzak aldatu egin dira azken urteotan eta, Debabarrenean beste eskaera eta behar batzuk sortu diren neurrian, Lanbide Heziketako formakuntza eskaintzen duten ikastetxeek ere moldatu egin dute euren eskaintza, behar horiek asetzeko neurri baten.

Zentzu horretan mintzatu zen Jon Iraola Eibarko alkatea Abian Azokaren aurkezpenean, eguaztenean. “Lanbide Heziketak oinarritzko eginkizuna izan du Debabarrenean. Ezinbesteko zutabea izan da herriko eta eskualdeko industriari enplegarritasuna sustatzeko eta etorkizuna eraikitzeko. Orain, ezinbestekoa da XXI. mendeko erronkei aurre egiteko”, bere

iritziz. “Ez ditu bakarrik enplegu duinak eta egonkorak sortzen, talentua eta enpresa-espiritua ere sustatzen ditu eta hori izango da Eibarren eta Debarrenaren etorkizun oparoa bermatzeko oinarria”.

Iraolaren ustez, formakuntzak berebiziko balioa du, pertsonen garapenaren edo enpresen beharren asetzaren gaitetik. “Etika, talde-lana eta bikaintasunarengana konpromisoa sustatzen ditu, eta gakoa da gizarte kohesionatu, erresiliente eta integratzailea sortzeko. Lanbide Heziketa garapen jasangarrirako ezinbesteko zutabea da”, bere berbetan.

Maialen Gurrutxaga Elgoibar-ko alkateak eta Debegesako presidentek inaugurazio ekitaldian adierazi zuen Debarrenean enpresa-sare garrantzitsua dugula eta horri eutsi behar diogula. Horretarako, formakuntzaren garrantzia azpimarratu zuen. “Talentua sustatzeko balio du, enpresa-sare horri erantzuna emanez”, bere berbetan. “Abian Azokak eskualdean egin daitezkeen titulazioak ezagutarazteko balio du eta, era berean, eskualdeak duen indarra erakusteko ere bai”.

Zentzu horretan, unibertsitateen prestakuntza graduek Abian Azokan izan duten presentzia nabarmendu nahi izan zuen. “Aurten goberrikuntza izan da eta aurrerapauso garrantzitsua da. Izan ere, Lanbide Heziketa eta unibertsitatea ibilbide osagarriak dira, ez dago zertan bata edo bestea aukeratu”, bere hitzetan.

Orain, beste bi urte itxaron beharko ditugu hurrengo Abian



Eskaintza modu praktikokoan erakutsi dute ikastetxeek. EKHI BELAR

Azoka egiteko. Gizartearen, hezikuntzaren eta ekonomiaren bilakaera eta aldaketak gertatzen diren abiadura ikusita, urte bi hauetan aldaketak egongo direla pentsa dezakegu eta hurrengo azokan berrietasun gehiago egongo direla. Bitartean, Debarreneko etorkizun oparoa bermatzeko lanean eta prestatzen jarraitu beharko dugu.


BIDEOA



Zapatuan Eibarko Duatloia jokatu da

Gure herriko JAZ Eibar Triatloi Taldekoek antolatutako proba Euskal Duatloi Zirkuituaren barruan dago, eta guztira 25 kilometro eta erdiko ibilbideari egin beharko diote aurre bertan parte hartuko dutenek. Hasierako bost kilometroak antxintxiketan egingo dituzte, presatutako zirkuituari lau itzuli emanaz (Calbeton, Urkizu, San Andres ikastetxea, Untzaga, Euki); jarraian bizikletan 18 kilometro osatuko dituzte (Untzaga, bariantea, San Andres paseoa, N-634, Matsaria poligonoa); eta, amaitzeko, lehen zatia erdia egingo dute, zirkuituari bi itzuli emanaz, antxintxikan.

Proba arratsaldeko 16:45ean hasiko da eta, antolatzaileek diotenez, 124 atletek eman dute izena, 110 gizonezko eta 14 emakumezko. Parte-hartzaileak hainbat mailatan egongo dira banatuta, tartean kadete, junior, sub-23 eta beteranotako hiru, 40 urtetik gorakoak, eta taldekakoa ere. Dena dela, "parte-hartzaile guztiak jasoko dute oparia", Eibar Triatloikoek diotenez. Aholkurik ere eman digute proba jarraitzea nahi dutenentzat: "Karrerara ondo ikusteko leku aproposena Untzaga bera da. Bizikletako sektorea ikusteko, bestalde, bariantera igotzea da onena, Itzio parean



Aurreko zapatuan denboraldiko lehen duatloia jokatu zen Mungian. Han izan ziren JAZ-eko Roberto Gartzia eta Ugaitz bere semea (*argazkian*), Pablo Zabalarekin batera. Zabalak 17. postuan amaitu zuen; atzetik, Ugaitz 33. sailkatu zen (laugarren jubencil mailan) eta Roberto 70. postuan (seigarren V2 mailan).



Udaberri Sariak hasiera bikaina eman zion gurpil gaineko denboraldi berriari

Eguraldi kaxkarra iragarrita bazeo ere, eguna ondo portatu zen domeka goizean. Horrela, lasterketa polita egin zuten parte hartu zuten 136 txirrindulariek Eibarko Txirrindulari Elkarteak aurrean ipini zien ibilbidea osatzeko orduan, ihesaldiak protagonista bihurtuz noiz- eta nonnahi. Azkenean, 78 kilometro atzean lagata, laukote baten artean jokatu zen garaipena T. Etxebarria kaleko helmugara

begira, hor GT-Tolosa Danenako Eñaut Urkaregi azkarrena izateko; bi segundora sartu zen Ampo taldeko Ander Otegi, eta lau segundora sailkatu zen Ipar Maquina-Dimaq taldeko Aimar Fernandez de Gorostiza, euren artean podiuma osatzeko. Team Iparraldek bereganatu zuen talde onenaren saria, eta aipatutako Aimar Fernandez hirugarren sailkatuak irabazi zuen mendiko saria.

Hodei Ezpeleta Urrezko Aizkolarien Binakako azpitzapeldun

Hodei Ezpeleta "Bihurri"k eta Jokin Urretabizkaia "Basozabal"ek ezin izan zuten iaz irabazitako Urrezko Binakako Txapelketa berretsi, eta oraingoan bigarren geratzearekin konformatu behar izan zuten. Hala ere, lan bikaina egin zuten azpitzapeldunek, amore eman behar izan bazuten ere Iker Vicente eta Arkaitz Etxebeste txapeldunen aurrean. Azpitioko Izarraitz frontoian jokaturako txapelketaren finalean Vicente-Etxebeste bikoteak 22 minutu eta 49 segundoko denbora behar izan zuten markatutako lanarekin amaitzeko, eta 46 segundotara geratu ziren lehenengo enborra mozten azkarrenak izan ziren eibartarra eta Basozabal. Hirugarren postuan geratu ziren Eneko Otaño eta Julen Larrea, irabazlearengandik 4 minutu eta 2 segundora.

Futbol 7 PC Liga Nazionalaren bi jardunaldi jokatuko dira Anexoan bihar eta etzi

Ipuruako Anexo zelaiak hartuko ditu asteburu honetan garun-paralisia eta hartutako garun-kalte dutenentzako 7. Futbol Liga Nazionalaren 4. eta 5. jardunaldiak. Espainiako Federazioak (FEDPC) antolatzen duen lehiaketaren gaur egungo txapelduna da SD Eibar Fundazioaren taldea, eta zapatuan, 15:00etan hasita, Extremadura-ko Federazioaren taldearen aurka jokatuko du, domeka eguerdian, 12:00etatik aurrera, Fundación Segunda Parte aurkari izango duen bitartean. Azken hori da gaur egungo liderra, jokatutako hiru partiduen irabazi baititu. Eibar-ek bi partiduko jokatu ditu orain arte, Madrilgo Galapagarren eta Alacanten, biak irabaziz gainera. Beraz, lidergoa

jokoan izango da bi euren arteko norgehiagokan.

Eibarko fasea jokatu ondoren, 6. eta 7. jardunaldiak apirilaren 13an eta 14an jokatuko dira Vilanova i la Geltrun (Bartzelona), eta azken play-offa maiatzaren 18an eta 19an Madrilan izango da. Asteburu honetako partiduek honako ordutegia dute: zapatuan, FEXDPC-SD Eibar Fundazioa (15:00), CD Tenerife PC-CD AMDDA (16:30) eta Hercules Paralinpiar-Disport FC (18:00); eta domekan, CD Tenerife PC-Disport FC (09:00), CD AMDDA-FEXDPC (10:30) eta Fundación Segunda Parte Elecnor-SD Eibar Fundazioa (12:00). SD Eibar Fundazioaren taldeak Grupo Eibar eta Krean taldeen babesu du.



SD Eibar-ek "Izan Armagin" txartela atera du

"Izan Armagin" familia armagina da, munduko edozein lekutako jarraitzaileek beren grina klubetik hurbilago bizi ahal izateko, onura eskusiboez gozatuz. Estreinatutako txartelarekin, abonatuak izan ez arren klubarekin lotura izan eta abantaila ugarietz gozatu ahal izango dute armaginekin. Urtean 40 euroko prezioan, jarraitzaile armaginekin abantaila ugari izango dituzte: abonatuaren hurrengo kanpainetan bazkide egiteko lehentasuna; Ongi etorri pack-a, txartel pertsonalizatuarekin eta klubeko produktu ezberdinekin; Ipuruako partiduetarako sarrerak erosteko lehentasuna; %10eko deskontua SD Eibarreko denda ofizialean, Orsaixanen; Tour + Museo sarreren erosketan deskontua; eta Ipuruko partiduetako 11. titulu-larrarekin haurren argazkian ateratzeko aukera ere bai.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Gizonezkoen 2. Maila**
Leganes - EIBAR (etzi, 21:00)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**
Alaves - VITORIA (bihar, 16:00)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
EIBAR C - Real Sociedad C (etzi)
- Erregionaleko Ohorezko Maila**
EIBAR URKO - Real Union B (etzi, 12:30)
- Erregionaleko Gorengo Maila**
Segura Goierri - URKI (etzi, 16:00)
- Erregionaleko 1. Maila**
Behobia - EIBARTARRAK (etzi, 17:30)
- Jubeniletako Ohorezko Maila**
Antiguoko - EIBAR (bihar, 17:30)
- Jubeniletako Liga Nazionala**
EIBAR B - Getxo (etzi, 16:00)
- Kadeteetako Euskal Liga**
Olarizu - EIBAR (bihar, 12:00)

FOBALL-ZALETUA

- Garajes Garcia - L. Rueda (bihar, 09:00)
- Xania - Adahi Eraieder (bihar, 10:30)
- Malape Taberna - Baserri (etzi, 09:00)
- GastroGilda - Mar Marem (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

- Gipuzkoako 3. Maila**
DAD Kutxa - EIBARTARRAK (gaur, 20:15)

ESKUBALOIA

- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**
Utebo - MEK EIBAR (bihar, 16:30)
- Jubeniletako Euskadiko Liga**
Bidasoa Irun - MEK EIBAR (etzi, 10:00)

ERRUGBIA

- Emakumezkoen Ohorezko Maila**
Rugby Barça - EIBAR (etzi)

SASKIBALOIA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
ART. JUANTXO - AZ Casa Rioja (bihar, 14:30)
- EIBAR B - Aloña Mendi (bihar, 16:20)

WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Maila Nazionala**
CW Dos Hermanas - URBAT (bihar, 17:30)
- Gizonezkoen Euskal Herriko Liga**
URBAT B - WP 9802 (gaur, 21:30)
- Emakumezkoen Euskal Herriko Liga**
URBIAK - Larraina Iruña (bihar, 14:30)

XAKEA

- Gipuzkoako 2. Mailako Liga**
EIBAR - Berkoa Elgoibar (bihar, 16:00)

GIMNASIA ERITMIKOA

- XVII. Oskitxo Torneo (Gasteiz)**
Haizeder Arguiz (gaur, 16:40)
- Nahia Arguiz (gaur, 20:35)
- Ipurua Oinarrizko Jubenil Taldea (bihar, 09:33)



Arguiz ahizpek Oskitxo Torneoan hartuko dute parte

Bihar eta etzi Ipuruako hainbat gimnasta izango dira Gasteizen jokatu den estatu mailako XVII. Oskitxo Torneoan. Seniorretan, banakako modalitatean, Arguiz ahizpa eskoriatzarrek lehiatuko dute biharkoan: Haizederrek 16:40ean hartuko du parte eta Nahiak 20:35ean. Bestalde, etzi eta taldekako kompetizioan, Ipuruako oinarrizko jubencil taldearen txanda izango da, goizeko 09:33an hasiko duten ariketarekin.

Ibilbide botanikoa eta Sebastian Alvaroren hitzaldia Mendi Jardunaldietan

Atzo Fernando Errekalde eskaintako Manasluren inguruko proiektioaren ondoren, aurtengo Mendi Jardunaldiek bihar bertan izango dute hurrengo ekimena, Mentxu Muniategik eskainiko duen saio praktikoarekin. “Ibilbide botanikoa Eibarren” izeneko ekitaldia ere doanekoa da, baina izena eman behar da mendia@deporeibar.com helbidean, plaza mugatuak direlako. Deporretik irlanda, publiko guztiei zuzendutako ibilbide erraza eta pedagogikoa gidatuko du Muniategik Eibar inguruetan. Bere helburua “bertoko landaretza ezagutzeaz aparte, beren ezaugarriak eta erabilera ikastea da, bai elikaduran baita medikuntzan ere”. Saioa oinarrizkoa da eta giro jator batean izatea espero da. Amaitzeko, dastaketa txiki bat egingo da eta bakoi-tzak bere ukitu sortzailea jarri ahal



Sebastian Alvaroren hitzaldia izango da hilaren 6an. Mentxu Muniategik (behean), bestalde, bihar egingo du ibilaldia.

izango du. 10:00etan hasi eta 13:30 bueltan amaitzeko asmoa dute.

Jardunaldiotako hirugarren ekimena eguaztenean izango da, hilaren 6an, Portaleko areto nagusian 19:00etatik aurrera Sebastian Alvarok eskainiko duen “Exploradores: al filo de lo imposible”. Aurretik ere Jardunaldiotan izandako Alvarok, ordu bete eskasean, “gizakiaren abentura txundigarrietako bat laburbiltzen du: bera bizi den munduaren esplorazioa eta konkista”. Al Filo de lo Imposible lan taldeak burutu zituen 250 espedizio baino gehiagoko bidetik, “Abenturaren eta Gizateriaren kondaira labur bat da. Altamirako harpeetatik, Alejandro Magnoren garaitik, Lurreko mendirik garaienetaraino”.

Xania Tabernak irabazitako futbol-zaletuen Liga amaituta, Kopa hasiko da asteburuan

Aurreko asteburuan jokatu zen futbol-zaletuen Liga txapelketako azken jardunaldia, eta azken aurreko jardunalditik txapelkun zen Xaniak beste hiru puntu eskuratu zituen, Bar Maren taldeari 4-1 irabazita.

Ligako azken sailkapena honela geratu da: 1) Xania Taberna (37 puntu), 2) Malape Taberna (31), 3) Adahi Eraieder (27), 4) Garajes Garcia (25), 5) BOJ (20), 6) Bar Maren (18), 7) GastroGilda (16), 8)

Limpieza Rueda (16) eta 9) Baserri (8 puntu). Xania irabazlea izan da partidu gehien irabazi eta gutxien galdu dituen, gol gutxien jaso dituen izateaz gain; gol gehien sartu dituen, bestalde, Malape Taberna bigarren sailkatua izan da.

Asteburuan Kopa txapelketa hasiko da, betiko ordutegiari jarraituz, bihar eta etzi binaka partidurekin.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horieta diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartean daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore horretako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



Urkizu Ref. 2530

Apartamentua. Igogailuarekin.
Eguzkitsua, argitsua. Altzariekin.
95.000€



Jardiñeta Ref. 2529

2 logela, 2 balkoi. Bizitzera sartze-
ko. Kalefakzioa eta trastelekua.
129.900€



Saratsuegi Ref. 2519

2 logela, 2 komun, 2 garaje,
2 trasteleku. Igogailua 0 kotara.
159.000€



Ipurua Ref. 2518

3 logela. Kalefakzioa eta igogailua.
Altzariz hornitua. Trastelekua.
140.000€



San Juan Ref. 2526

2 logela. Pisu altua, terraza
eguzkitsua. Igogailua 0 kotara.
195.000€



J. Gisasola Ref. 2514

3 logela, 2 balkoi. Pisu altua, argi
eta eguzkitsua. Igogailua 0 kotara.
215.000€



Jardiñeta Ref. 2522

3 logela. Balkoi eguzkitsua.
Igogailua 0 kotara. Kalefakzioa.
149.000€



Bidebarrieta Ref. 2363

4 logela, 2 balkoi. Trastelekua.
Igogailua 0 kotara. Kalefakzioa.
270.000€

Etxebizitza erosi baino lehen...

Pisu bat erostea erabaki garrantzitsua da gure bizitzan. Gastu handia da, eta gure bizitza igaroko den lekua aukeratzea dakar. Etxe bat erosteak eragina du gure bizimoduan, eta, beraz, ondo aukeratu behar da eta hainbat faktore aztertu behar dira. Jarraian, kontuan hartu beharreko aholku batzuk:

- Ohar simple baten bidez egiaztatzea etxebizitza kargarik gabe dagoela, bai eta komunitatearen zorrik eta bestelako betebeharrak gabe ere.
- Hipoteka arretaz kalkulatzea, eskatu behar izanez gero. Gure diru-sarreraren %40 ez gainditzea.
- Kontutan hartu behar da komunitatearen kuota, zergak eta aparteko gastuak, altzariak erosteko beharko duguna, edo argi-, gas- eta ur-horniduren alta emateko ordaindu beharko duguna.
- Auzoari, etxebizitzaren egoerari, inguruko zerbitzuei, dendei, ikastetxeei eta garraioei buruzko informazioa jasotzea.
- Espazioari dagokionez gure beharrak aurreikustea, bi edo hiru logela beharko ditugun aztertzea; armairuak nolakoak izango diren, garajea...



- Etxebizitzak argiaren eta beroaren aprobetxamenduarekiko duen orientazioari arreta jartzea eta eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eskatzea.
- Kalitateak eta akabera egiaztatzea, bai eta sistema elektrikoak eta uretakoak ere.
- Berritutako etxe berri edo erabilitako bat erostearen abantailak aztertzea eta aukera egokiena aukeratzea.
- Ondo informatzea, presaka ez ibiltzeko eta aukera interesgarriak ez galtzeko.



HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA
Errebal, 20
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com



IBAIONDO
INMOBILIARIA ETA
HOME STAGING ZERBITZUAK
T. 943 20 12 13

GESTION INMOBILIARIA

☎ 943 20 15 80

📍 Bidebarrieta, 1. EIBAR

✉ info@kotainmo.com
www.kotainmo.com

KOTA
INMOBILIARIA +
ARQUITECTURA



donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAK BAKARRIK

Isasi, 16 EIBAR
M. Valdespina, 12 ERMUA

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, erraz
eta eraginkorrena

donpiso@donpisoeribar.com
www.donpiso.com / 943 82 05 10 / 618 769 839



Gestio inmobiliarioa:
alokairuak, erosketak,
salmentak, tasazioak,
kontratuak...

**ETXEBIZITZA,
GARAJE
eta LOKALEN**
Salerosketa
eta alokairua

Galdetu zure etxebizitzaren
Finantziatorako Bidea:
mailegu hipotekarioak,
pertsonalak...

Informazio Pertsonalizatua

33 urtetik goragoko esperientzia

Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com



API 323



Pilotaren faltan, itzalarekin jolasten. PEDROARRIOLA



Egitarau osoa
deskargatzeko:



martxoak 1 (barixakua)



“¡Vamos, que nos vamos!”

Golden Apple Quartet (Gipuzkoa)

Komedia musikala / 90'

Antzezleak: EDUARDO ERRONDOSORO, LOYOLA GARMENDIA, MANU ROMANO, KIKE OCHOA
Zuzendaria: GOLDEN APPLE QUARTET

Agur-biran, laukoteak bere buruaren bertsiorik onena eskainiko du, ia lau hamarkadatan ikusleekin partekatuko abestien errepasoa eginez. Azken aldiz jantziko dute esmokina!

Coliseo (19:00)

otsailak 24 (zapatua)



“Edipo”

El Temple (Zaragoza)

Sofoklesen lana, Alfonso Piourek egokituta
Drama / 75'

Antzezleak: FELIX MARTIN, IRENE ALQUEZAR, CHAVI BRUNA, FRANCISCO FRAGUAS
Zuzendaria: CARLOS MARTIN

Edipo oraindik argitu gabe dagoen krimen baten ikerketaren buru jarriko dute, eta lekuko eta arrasto ezberdinek gertaeren egia ekarriko dute azkenean: bera da, jakin gabe, hiltzailea.

Coliseo (19:00)

martxoak 3/4 (domeka/astelehena)



“Almazenean”

Txalo (Gipuzkoa)

David Desolaren lana.

Komedia / 90'

Antzezleak: IKER GALARZA, ZUHAITZ GURRUTXAGA
Zuzendaria: BAGOÑA BILBAO

Komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa eragiten du. Galtzaileen kontzientzia azalera ateratzeko.

UNI-Eibar (19:00)

martxoak 7 (eguna)



“Mira hadi”

Loraldia produkzioak (Bizkaia)

Eulalia Abaitua andre-begietan

Antzerki dokumentala / 60'

Antzezleak: JMARIA URCELAY, LIDE HERNANDO (LIHER)
Zuzendaria: GETARI ETXEGARAI

Gure memoria bisualaren artisauek ezinbestekoa teatroaren eta kanten bidez ezagutzeko aukera. Eulalia Abaitua argazkilaria etnografiko aparta eta bidegilearen bizitzaren ingurukoa.

Coliseo (19:00)



Bost egunetan lantokia partekatuko dute obraren protagonista izango diren bi aktoreek.

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga "almazenean"

Domekan lehenengo, euskaraz gainera. Eta astelehenean ondoren, gazteleraz orduan. Bitan antzeztuko dute David Desolaren lana izen one++ko bi antzezleek. Txalo konpainiak Jardunaldietara ekarritako lana Unibertsitatean ikusi ahal izango da.

Jubilatzeko dagoen arduradunak (Iker Galartza) eta bere lanpostuan ordezkatzuko duenak (Zuhaitz Gurrutxaga) bost egunez lantokia partekatuko dute, ezinbestean, itxuraz ezer gertatzen ez den almatzen huts batean.

Denboraren iragaitea, bi ezezagunen arteko isilune deserrosoa, esperoan egotearen amorrazioa, bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama. Baldin-

Bi langileen arteko betirako harremana galtzaile-kontzientzia partekatu eta gero

tza guztien baitan, bi langileen arteko harremana estutzen joango da eta biek daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientzia.



David Desola kataluniarra da komedia zorrotz eta garratzaren sortzailea.

Umorea eta drama nahasten dira lanean, esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnartuz

David Desola idazle kataluniarra atondu duen komedia zorrotz eta garratz horrek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa eragiten du.

Machado Saria 2003an

David Desole dramaturgo katalanaren obra horrek Hermanos Machado saria jaso zuen 2003. urtean. Haren estiloa umorea eta drama egitea da, eta hau ere genero horietan kokatu du. Era berean, kritikotasuna da gidoilariari esleitzen zaion beste ezaugarrietako bat. Txalok aurkeztutako sinopsian, "galtzaileen kontzientzia" eta "komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan bizitzen diren egoeren errealitateari gerturatzeko gaitu eta horretaz jabetzen laguntzen du".

Ainhoa Mariezkurrenak Argia astekarian lanaren inguruan egindako kritikan honela zioen: "Antzezlan honetan testuak du garrantzia handia, eta isiluneek ere bai. Denborari eta egon beharri merezi duen lekua eman diote, esklabutza zenbait modutan ematen dela irudikatu eta langile klaseko bizitza guztietan dagoen zama begien aurrean jarrita. Ziur naiz tristura, nostalgia eta angustia sentitu dituela ikusleak gure bizitzak eszenan bezala pasatzen ari direla sentitutakoan. Lanera joatea bazkaltzea bezain normala dela sinesten dugun gizartean, umorearen atzean kritika ulertzea lotu duenak behintzat".

Argazkilari etnografiko apartaren lanaz jabetzeko teatroa eta kantak

Datorren asteko eguenean, martxoaren 7an, ordubeteko antzerki dokumentalaz gozatzeko aukera izango dugu. Patxo Telleriak egindako gidoiari jarraituz, aitzindaria izan zen emakumeak aurrera eramandako lanari erreparatu eta gure begien aurrean jarriko digute.

Gure memoria bisualaren artisau ezinbestekoa teatroaren eta kanten bidez ezagutzeko aukera da eskaintzen zaiguna lan honetan. Orain dela urte batzuk Argazkilaritza Maiatzeaneko protagonista izan zen Eulalia Abaitua argazkilari aitzindariaren bizitza ez da oso ezaguna. Bilbotik Liverpoolera abiatu zen eta Ingalaterran deskubritu zuen argazkilaritza. Argazkilari etnografiko aparta argazki-teknikan ere berritzailea izan zen. Bidegile nabarmena. Haren bizitza eta sormena taularatuko dira begirada garraikide baten bitartez. Teatroa eta kantak gure memoria bisualaren artisau ezinbestekoa ezagutzeko.

Andre-begietatik

Aspaldikoa bada ere, Eulalia Abaitua (Bilbo, 1853-1943) ez da iragana, tarteka sortzen baitira alde askotatik begiratuta aitzindaria izan zen emakume argazkilariairene lana gogora ekartzen duten jarduera eta egitasmoak. Horietako bat jarri du abian Loraldia Kultur Elkarteak, aurreneko euskal argazkilaritzat hartua izan dena omenduko baitu 'Mira Hadi. Eulalia Abaitua, andre-begietan' ikuskizunaren bidez.

“Anton Abbadia, Elkano edota Iparragirrerekin egin bezala, euskal kulturaren pertsonaia erreferente bati merezi duen errekonozimendua eskaintzea eta balorean



Eulalia Abaitua, argazkilari etnografikoa.

Patxo Telleriaren gidoiari jarraitzen dio Loraldiaren lanak

jaritzea” da 'Mira Hadi' obra sortu dutenen helburua. Protagonista Eulalia Abaitua da, baina oraingoan hiru emakume izango dira omenaldi hau aurrera eramango dutenak. Gidoia Patxo Telleriak idatzi du, eta Getari Etxegarai zuzendariak beste bi emakumeren laguntzarekin osatuko du Eibarko antzekizuna. Teatro kontaktetaz Maria Urzelay arduratuko da, argazkilariairene bizitza eta memoria osatuz. Lide Hernando "Liher"-ek, bestalde, musikaren bitartez, istorio miresgarri honek merezi duen giroa sortuko du. Ikus-entzunezko arloari dagokionez, Eulaliaren argazkien bildumaren zati bat ezagutzeko aukera egongo da, betiere gaurko ikus-estetikara moldatuta.



Loraldia Kultur Elkarteak aurreneko euskal argazkilaria omentzen du lanean.

Kultur eskaintza oparoa KORRIKAren eskutik

Martxoaren 20an, 10:30 inguruan ailegatuko da 23. KORRIKA Eibarrera, baina aurretik, ohikoa den bezala, girotzen joateko egitarau zabala antolatu dute Eibarko AEK euskaltegiak, Lurguia fundazioak, Soraluzeko Baso Biziak-ek, Soraluzeko Udalak, Eibarren Akebaik, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Zaizoi tabernak, Arrate Kultur Elkarteak, Eibarko gazte mugimenduak, Eibarko Udalak eta Aspe pilota enpresak, asteburu honetan hasiko den Korrika Kulturalerako.

23. korrika KULTURALA

EIBAR

Martxoak 3, igandea 9:00
Zuhaitz-landaketa
Atxolinen
Izen emaria euskaltegian

Martxoak 6, asteazkena 19:00
Bizkarsoro
Coliseon
Sarrerak egunean bertan, 3€

Martxoak 14, osteguna 19:30
Ttipi-ttapa bakarriketa
Zaizoi tabernan

Martxoak 15, ostirala 21:00
Kantu afaria
Arrate Kultur Elkarteak
Txartelak Kultu tabernan salgai
Bazkideak 15€ Bazkide ez direnek 20€

Martxoak 16, larunbata
Korrika eguna
Eibarko Gazte
Mugimenduen eskutik
Egun osoko egitaraua

Martxoak 17, igandea 17:00
Binakako
pilota finalaurrekoa
Korrika arduradunekin argazki ofiziala
Astekako frontoian

Martxoak 19, asteartea 15:15
Korrika txikia
Amaiera Urteagatik
(Euria egingo bala, Enebailek)

Martxoak 20, asteazkena
10:30
Korrika Eibarren
Uiberritartetik & Maiztagaraino

Martxoak 21, osteguna 19:00
Badon antzezlan
Coliseo Antzokian. Sarrerak 12€ (kutsabank)

Martxoak 22,23,24
Ihes-gela
Urteagatik Plaza
Izen-ematea:
www.euskarsazbarrabara.net/ihes-gela





Martxoak 24, igandea 9:00
Baionara autobusa.
Korrika amaiera
Egozailen. Izen-ematea:
685746634 whatsapp. Joan etorria 15€

korrika.org

aeK **Lurguia** **SORALUZKO BASO BIZIAK** **SORALUZKO UDALAK** **EIBARREN AKEBAIK** **Kitto!** **Kultur Bazarra**

Domekan, Soraluzen egingo den **zuhaitz landaketarekin** ekingo zaio Eibarko Korrika Kulturalari. Eguaztenean, berriz, “**Bizkarsoro**” filma eskainiko da Coliseon, 19:00etan. Josu Martinezek zuzendutako fikziozko luzemetraia ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost istoriok osatzen dute. Sarrerak 3 euro balio du eta leihatilan erosi ahalko da, egunean bertan. Emanaldia eta gero, Izaskun Urkijo filmeko arte zuzendariarekin solasaldia egingo da. Martxoaren 14an, Pituxa Klownek “**Ttipi-ttapa**” umorezko bakarriketa aurkeztuko du, 19:30ean Zaizoi tabernan. Lan horretako protagonista Rosita da. Bi urterik behin janzten du 1980. urtean, lehen Korrikarako erositako txandala. Euskaldunontzat dagoen zita garrantzitsuen delat uste du, eta ez du Korrika bakar bat ere galdu. Esperientziak ematen dion jakinduriatik, Korrikaren inguruan arituko zaigu, begirada umoretsua ardatz duela.

Hurrengo egunerako (**martxoak 15**), **kantu afaria** antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak. 21:00etan hasiko da eta txartelak Kultu tabernan ipini dituzte salgai (15 eurotan bazkideentzat eta 20 eurotan beste guztiarentzat).



Zapaturako (**hilak 16**), berriz, Eibarko Gazte Mugimenduaren eskutik **Korrika Eguna** ospatuko dugu, egun osorako egitarauarekin. Eta biharamunean (**martxoak 17**), 17:00etatik aurrera buruz-buruko pilota finalurrekoa Astelenan jokatuko dela aprobetxatuz, Korrika arduradunekin **argazki ofiziala** egingo dute **frontoian**.

Egun bateko atsedena eta gero, **martxoaren 19an** (martitzena) **Korrika Txikia** egingo da, 15:15etik aurrera. Eta hurrengo egunean (**martxoak 20**, eguaztena) ailegatu da **23. Korrika** Ei-

barrera, Unibertsitate Laboraletik sartu, gure herriko kaleak zeharkatu, eta Maltzagarainoko ibilbidea betetzeko. Eta euskararen lekukoa eskurik-esku erabili ondoren, Euskal Herri mailako Korrika Kulturalaren lan nagusia dena, **“Badon”** antzezlan, ikusteko aukera izango dugu Coliseon, **martxoaren 21ean**, 19:00etan. Sarrerak 12 euro balio du eta aldeztatik erosi daiteke, leihatilan zein Kutxabank zerbitzuaren bitartez. Egitaraua biri-

biltzeko, martxoaren **22, 23 eta 24an Ihes-gela** ibiltaria izango da Untzagan.

Bestalde, martxoaren 24an, 23. Korrikako azken egunean **Baionara joateko autobusa** antolatzen ari dira. Autobusa 09:00etan irtengo da, Ego-Gainetik (09:15ean Soraluzezik eta 09:30ean Elgoibartik), eta buelta 19:30ean izango da. Prezioa 15 eurokoa da, eta izena emateko Whatsapp bidali behar da, 688 74 66 34 zenbakira.

“*Bizkarsoro* pelikulak hizkuntza baten heriotzaz egiten du berba, autopsia moduko bat da”

IZASKUN URKIJIO • Arte zuzendaria



Korrika badator eta, lekukoa Eibarrera iritsi baino lehenago, zenbait ekintza egingo dituzte Korrika Kulturalaren barruan. Besteak beste, hilaren 6an, eguaztenean, 19:00etan, ‘Bizkarsoro’ pelikula emango dute Coliseo antzokian eta, ondoren, Izaskun Urkijo arte zuzendariarekin solasaldia egiteko aukera egongo da. Sarrerak 3 eurotan erosi ahal izango dira leihatilan, egunean bertan.

Arkitekto ikasketak egin eta horretan jardun ondoren, Paul anaiaren film laburretan arte zuzendaritza lanak egiten hasi zen Izaskun. ‘Errementari’ pelikularekin luzemetraieta-
ra egin zuen salto eta harrezkero zeresana eman duten filmetan aritu da Urkijo, zine munduaren esker ona jasotzeraino: ‘Nora’, ‘Ane’ eta ‘20.000 especies de abejas’, besteak beste. Josu Martinezek zuzendutako ‘Bizkarsoro’ da egin duen azken lana eta filma sortzen bizitako esperientzia bereziaren inguruan jardungo du Eibarko ikusleekin.

‘Bizkarsoro’ existitzen ez den toki batean kokatzen da, baina kontatzen diren istorioak benetakoak dira, ezta?

Istorioak existitzen ez den Euskal Herriko herri batean kokatzen dira, Bizkarsoron, baina Euskal Herriko edozein herritan gerta zitezkeen. Azkeneko mendean gertatzen diren bost istorio dira eta bostak dira euskararen zapalkuntzaren ingurukoak. Josu Martinezek esaten du pelikulak hizkuntza baten heriotzaz egiten duela berba eta autopsia moduko bat dela. Hau da, behin hizkuntza bat hiltzen denean, honek erakutsiko luke zergatik gertatu den hori. Ikusiko da zer gauza gertatu diren hori hala izateko. Hala ere, Josuk esaten

du euskara berez mirakulua dela eta salbatu egin dela. Baditugu irratia eta telebista euskaraz, euskaraz mintzatu gaitezke, zinea euskaraz egiten dugu, baina orain salbatzeke dagoena euskara jendea dela, euskaraz bizi nahi duen jendea, gazteak batez ere.

Istorioak bost sasoi ezberdinetakoak dira. Kronologiki aurkezten dira?

Bai. Gertaera batek hurrengoan nola eragiten duen ikusi daiteke, eta denak duela azalpen bat. Lehen istorioa Lehen Mundu Gerran kokatzen da; bigarrena 1920. hamarkadan Frantzia; hirugarrena 1940. hamarkadan, Francoren sasoi; laugarrena 1960. hamarkadan; eta azkena 1980. hamarkadan, ikastolen sorreraren sasoi.

Filma Baigorri grabatu duzue. Zerk eraman zaituzte hara?

Josu bizkaitarra da, baina Baigorri bizi da. Berak dio jaso dituen eta kontatu dizkioten istorioetatik sortu duela gidoia, baina ez hortik bakarrik, Baigorri bizitzera joan zenean bertako jendeak euskaraz mintzatzeko lotsa edo beldurra zuela ikusi zuelako. Hortik tiraka, atzean zeuden istorioak ikertu zituen. Zergatik egon da lotsa eta beldur hori? Agian, baztertuak ez izateko, edo asto baten moduan tratatuak ez



Goya saria jasotzeko izendatu zuten Izaskun Urkijo '20.000 especies de abejas' pelikulan egindako lanarengatik (bigarrena ezkerretik).

izateko. Horrela, han sortu du istorio hau eta bertako jendearekin egin dugu. Josuk bere lanetara hurbilazteko eta seduzitzeko gaitasuna dauka. Asko bizi du eta egiten dituen lanak benetan interesgarriak dira. Proposamena herriari aurkeztu zionean herriak oso ondo hartu zuen eta oso gauza polita gertatu zen, herri guztiak hartu zuelako parte. Filmean zehar ikusten diren aktore gehienak Baigorri eta ingurukoak dira. Umeak Baigorriko ikastolakoak dira, gazteak Baigorri eta inguruko auzoetakoak dira, eta baita nagusiak ere. Bost urtetan zehar, urtez urte han elkartu gara jende berdinarekin edo antzekoarekin, pelikula bost zatitan grabatu baitugu. Beraz, oso polita izan da urtero-urtero aurpegi berdinarik ikustea eta berriro ere aktore berak agertzea hurrengo atalean. Herriko jendea pantaila aurrean agertzeaz gain, lanean ere aritu dira asko. Batzuk produkzioan ibili dira bazkariak edo azpiegiturak prestatzen, beste batzuk arteko taldean egon dira nirekin dekorazioak prestatzen edo gauzak lortzen... Oso jende prestua, langilea eta alaia da, eta oso esperientzia polita izan da. Ikastolako jendearekin lan bat egitea bezalakoa izan da.

Hori bai dela benetako herri-lana!

Benetan horrela izan da. Gainera, normalean, film luze bat egiteko diru asko behar da, milioi eta erdi euro inguru, baina kasu honetan, horrela eginda, bost urtez, zatika, 150.000 euro izan dira guztira. Urtero laguntzak lortu ezker, zatika egin dezakezu. Josuk proposatutako esperimendua izan da. Bere sasoiari, badirudi Kalabaza Tripontziak horrelako zerbait egin zuela eta Josuk modu hau aukeratu du. Horrek erakusten du herriko jendearekin eta diru gutxirekin zinema egin daitekeela. **Lan egiteko modu horrek badu eragina azken emaitzan?** Aktoreen aldetik demaseko maila dagoela iruditzen zait. Jendeak benetan serio hartzen du, konpromiso handiz, eta demaseko interpretazio-lan politak daude. Jendeak gustuz eta pozik lan egiten duenean, gainera haien herrian, nabaritzen dela uste dut. Nik, adibidez, Josurekin oso gustora egiten dut lan. Zinearen munduan anaiarekin hasi nintzen, Paulekin, eta horrela egiten ikasi nuen, maitasun osoz lan egiten, eta esfortzu handia eginez ere, noski.

Elkarriketa
osoa





Euskeraz primeran! ekimena merkealdien azokan izan da

Eguaztenean hasi eta gaur iluntzera arte iraungo duen neguko merkealdien azokan izan da, urtero moduan, Euskeraz primeran! Dendari eta bezeroen artean euskarazko harremana bultzatzeko helburua du ...eta kitto! Euskara

Elkarteak antolatzen duen ekimenak eta hiru egunez izan da azokan, herritarrei erosketetan ere euskara erabil dezatela gogoratzeko. Mahaira gerturatu direnek dinamika erraz batean hartu dute parte, harategi, arraindegi



eta fruta-dendetan ...eta kitto!k banatutako horma-irudietan oinarrituta. Horrekin batera, EMGI-k emandako 100 euroko erosketatxartelaren zozketan sartu dira eta Euskeraz primeran!-eko erosketapoltsa jaso dute opari.

Ttipi Ttapa bakarriketa antolatu du ...eta kitto!-k Korrikaren harira

Pituxa taldearen “Ttipi-Ttapa, Ttipi-Ttapa” umorezko bakarriketa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Korrika kulturalaren barruan. Martxoaren 14an, eguna, izango da Zai Zoi tabernan 19:30etik aurrera. Korrikaren izaeraren eta historiaren begirada umoretsua proposatzen digu ikuskizun honek: “Rositak bi urtez behin janzen du 1980an lehen Korrikarako erositako txandala. Euskaldunontzat dagoen zita ga-

rrantzitsuena dela uste du eta ez du Korrika bakar bat ere galdu. Esperientziak ematen dion jakinduriatik, Korrikaren inguruan arituko zaigu: abestien errepasoa, parte hartzeko gomendioak, antolakuntzarentzat oharrak...”, diote ...eta kitto!-tik. Itziar Saenz de Ojer aktoreak antzezten du Rosita pertsonaia. Bakarriketa ikusteko ez da sarrerarik ordaindu behar baina, hori bai, “etor zaitezte barrez lehertzeko prest”.



Doluari buruzko saio hunkigarria eskaini zuen Manex Beristainek

Martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkartean izan zen Manex Beristain "Azken galdera amari" liburua aurkezten. Emozioz betetako saio hunkigarria eskaini zuen azpeitiarrak, bertaratutakoengan sentimendu ezberdinak sorraraziz. Goxo landu zuen latza gerta dakigukeen gaia. "Liburu honek

dolu-prozesuan laguntzeko tresna izan nahi du, doluari aurre egiteko baliabidea. Haurrei heriotzaz hitz egiten diegunean, gure minak eta beldurrak sartzen dira tartean. Hortik hitz egiten diegu haurrei heriotzaz. Gauza txarrak gertatuta ere, bizitzan aurrera egitea posible dela kontatzen duen ipuina da,



erresilientziaren aldarrikapena", Manexen hitzetan.

Musikaz, txotxongiloz eta olerkiz baliatuz, oso giro intimo eta atsegina sortu zen aurkezpenean. Hogei bat lagun elkartu ziren, adin-tarte zabalekoak: "5 eta 75 urte bitarteko talde ederra etorri da. Liburua hain talde heterogeneoaren aurrean aurkezten dudan lehen aldia da, eta oso gustura egon gara". Prozesu horretan ikasitakoa irakaskuntzarako material moduan prestatzen ari da eta, aurrera begira, doluaren inguruko tailerrak egiteko asmoa daukala adierazi du azpeitiarrak.



zarelakogara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea



Aste Santuko oporretarako tailerrak antolatu ditu Udalak

Eibarko Udalak Aste Santuko opor garairako hainbat tailer antolatu ditu. 4 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerrak Jazinto Olabe ludotekan eta Errebal Plazan izango dira, eta gaurtik hasita egin daiteke aurrematrikula, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta. Eskainiko diren tailerrak honakoak dira: Akrobaziak, Popping eta Skate. Eta, horrez gain, robotikaren inguruko tailer teknologikoa eta saskibaloian aritzeko bideo-jolasa errealitate areagotuan eskainiko dituzte, Indianokua gaztelekuan.



Sormen tailerra Lehen Hezkuntzako ikasleentzat

Udalak arte eszenikoen inguruko sormen tailerra antolatu du, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat, haurrak antzerki eta musikalaren munduan murgiltzeko. Errebal Plazan burutuko da, euskaraz, martxoaren 9, 16 eta 17an, 17:00etatik 19:00etara. Eibarren erroldatuta daudenek 9 euro ordaindu beharko dituzte, eta bestela, prezioa 18 eurokoa da. Matrikula egiteko epea domekan itxiko da. Informazio gehiagorako edo izena emateko Eibarko Udalaren webgunean begiratu.



Patxi Bisquertek auzolanean egingo duen pelikularako diru-bilketa kanpaina abian

Patxi Bisquert aktore eibartarrak Pello Mari Otaño bertsolari eta poetaren memoria "ahantzurako zulotik ateratzeko" asmoz, hari buruzko filma, *Ombuaren Itzala*, ekoiztu du, auzolanean oinarrituta. Pandemia garaian abiatu zuen proiektua eta, hori gauzatzeko dirua biltzeko, crowdfunding kanpaina ipini zuten martxan orain dela pare bat aste. Film honen ekoizle eta zuzendariak dioenez, "kanpainak iraupen mugatua du (40 egun), eta orain arte heren bat bete dugu. Dakizuen bezala, kanpaina hauek kopuru jakin bat lortzen denean dira arrakastatsuek, gure kasuan 40.000 euro. Epea bukatu ondoren, helburura iristen ez bada, ez da ezer jasotzen". Hori dela eta, herritarrek ekarpenak egitera animatu nahi ditu. Hainbat modutara lagundu daiteke: www.verkami.com/projects/37275-ombuaren-itzala helbidean 'proiektuari ekarpena egin' klikatuta; 662 52 94 55 zenbakira Bizuma eginda; edota pellomaroitanoauzolana.eus atarian sarrera-bonoak erosita.

Martxorako Euskararen Agenda kaleratu du Eibarren Akebaik

Eibarren Akebai plataformak martxoko euskararen agenda kaleratu du. Martxoaren 8aren inguruan hainbat ekintza antolatu dituzte, baina, horrez gain, euskarazko bestelako ekintzak ere egingo dira herrian. Aipatzeko da, gainera, hilaren 20an, 10:30 inguruan, 23. Korrika pasatuko dela Eibartik. Agenda osoa irakurri edo deskargatzeko, www.akebai.eus helbidera sartu.



Musika Bandak erreperitorio klasikoa interpretatuko du

Erreperitorio klasikoarekin itzuliko da Eibarko Musika Banda Coliseo antzokira. Andoni Vazquezek zuzentzen duen bandak domekan emango du kontzertua, 12:30ean, eta, zuzendariaren berbetan, “bandako erreperitorio klasikoa joko dugu”. Honako pieza hauek interpretatuko dituzte: *Pepín Martín Vázquez* (pasodoblea, E. Caballero), *Katuska* (2. zatia, Zarzuelaren aukeraketa, P. Sorozabal), *Maite* (zortzikoa, P. Sorozabal), *La Virgen de la Macarena* (tradizionala, The Canadian Brass) eta *Mancini!* (aukeraketa, S. Bulla). Vazquezek zuzenduko duen kontzerturako sarrera doakoa izango da.



Salgai Rodrigo Cuevasen kontzerturako sarrerak

Eibarko Kulturaren eskutik, martxoaren 16an Rodrigo Cuevas musikari asturiarrak *Manual de Romería* diskoa aurkeztuko du, 19:00etan Coliseo antzokian. Cuevasak hainbat sari jaso ditu, tartean *Egungo Musikari Sari Nazionala 2023*, bere obraren “berezitasunagatik”. Cuevasak betiko musika folklorikoa eta garaikidea uztartzen ditu, nortasun propioarekin. Lan berria aurkezteko biraren barruan emango duen kontzerturako sarrerak 25 euro balio du (17,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Armagiñak Eguna antolatu dute

Armagiñak 1940 kolektiboak antolatuta, bihar *Armagiñak Eguna* ospatuko da, egun osorako prestatu duten egitarauarekin. Goizeko 10:00etan hasiko dira, Amañako ikastetxean jokatuko duten futbito txapelketarekin. Izena eman nahi duenak sare sozialen bidez edo zuzenean bertara joanda izango du horretarako aukera. Ondoren, 12:00etan, marianito-saioa egingo dute, Guridi tabernan, Local Bubbles Barakaldoko DJ-ak girotuta. Bertan klubeko pare bat kamiseta ofizial zozketatuko dituzte. Arratsalderako, berriz, kontzertuak antolatu dituzte, Eibarko Gaztetxean: 18:00etan Sheldon Brothers taldea arituko da (sarrera libre). Eta, 22:00etatik aurrera, Dirty Old Gasteiz, A Quemarropa eta Neallta Fola taldeek joko dute (7 euro).



Europa, Leire Kareaga artistaren begiradatik

Martxoaren 24ra arte egongo da zabalik Portalea kultur etxean Leire Kareagaren *¿Quo vadis, Europa?* izenburuko erakusketa. Barixakuan inauguratu zuten, eta bertan 90eko hamarkada amaierako zirriborro, grabatu eta pinturak erakusten ditu artistak, sorkuntza berriagokoak diren beste lan batzuekin batera.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

1			6				5	9
	9	5			7	3		
								1
			9	4				
4			2	8				6
			7	3				
	4							
		1	3			4	2	
6	8			5				1

L	E	Z	9	2	P	R	R	9
R	2	P	R	R	1	5	7	
5	6	0	1	8	7	2	P	C
Z	P	5	C	2	1	P	R	9
9	2	6	9	5	2	C	1	P
C	R	1	9	9	8	7	2	5
A	L	E	P	6	5	R	C	R
P	9	C	2	1	8	5	6	2
6	5	9	2	C	9	P	A	1

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	6					3	1	4
	3			4		2	7	
		7	1					
				3	7			6
6	9					4		7
3			4	6				
					8	6		
	4	1		5				8
8	5	6						9

soluzioa

R	E	I	P	A	C	D	S	R	
C	R	Z	9	0	0	1	P	2	
C	P	0	R	I	Z	C	R	Z	
L	R	0	R	P	Z	C	Z	E	
Z	C	P	1	C	0	R	R	0	
9	Z	0	Z	C	R	P	L	0	
R	9	0	C	R	1	Z	C	P	
6	Z	C	P	0	R	C	I	1	
P	L	C	C	R	S	Z	S	R	0

AURKITU 15 EZBERDINTASUNAK



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**

Martxoak 1/7

BARIXAKUA 1

FACTORING

10:00/20:00 Neguko Aukeren Azoka.

18:00/20:00 Pintxo-potea, Sofia eta Anderren musikarekin. Errebal Plaza.

ZINE-FORUMA

18:30 "Cinco lobitos" (Zuz: Alauda Ruiz de Azua) filmaren emanaldia eta solasaldia (Martxoak 8 lantaldearen egitarauaren baitan). Doan. Portalea (areto nagusia).



XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "¡Vamos que nos vamos!" (Golden Apple Quartet, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 2

ARMAGIÑAK EGUNA

10:00 Futbito txapelketa, Amañako ikastetxean.

12:00 Marianito-saioa, Local Bubbles, Barakaldoko DJ-arekin, Guridi tabernan. Kamiseten zozketa.

18:00 Sheldon Brothers taldearen kontzertua, doan, Eibarko Gaztetxean.

22:00 Dirty Old Gasteiz, A Quemarropa eta Neallta Fola taldeen kontzertua (7 euro), Gaztetxean.

MENDI JARDUNALDIAK

10:00/13:30 Ibilbide botanikoa Eibarren, Mentxu Amunategirekin. Eibarko Klub Deportiboa.



PROEGA EGUNA

11:00 Azoka solidarioa, bidezko merkataritzako eta Jende Xumearen produktuen salmenta. Haurrendako jolasak, Izartxo Taldeak antolatuta. Untzaga.

EIBARKO DUATLOIA

16:45 XXX. Eibarko Duatloia. Untzaga.



XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Edipo" (El Temple, Zaragoza). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 3

KORRIKA KULTURALA

09:00 Zuhaitz-landaketa Atxolinen.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan. Coliseo.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Almazenean" (Txalo, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

ASTELEHENA 4

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Almacenados" (Txalo, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

EGUAZTENA 6

LIBURU AURKEZPENA

18:30 "Arquitecturas del cuidado", Irati Mogollon Garciaren liburu-aurrekezpena eta hitzaldia. Ondoren, poesia. Martxoak 8 lantaldearen egitarauaren baitan. Haurrendako zaintza-zerbitzua egongo da. Andretxea.



KORRIKA KULTURALA

19:00 "Bizkarsoro" filmaren proiektzioa. 3 euro. Coliseo.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Exploradores: al filo de lo imposible", Sebastian Alvaroren eskutik. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



EGUENA 7

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emailentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

IPUIN-KONTALARIA HELDUENTZAT

18:30 "80 amandreak", Dorleta Kortazar Alkozen eskutik. Martxoak 8 lantaldearen egitarauaren baitan. Haurrendako zaintza-zerbitzua egongo da. Andretxea.

FRAKUSKETAK

Martxoaren 4ra arte:

- **EUSKAL JAIKO KARTELAK**. (Topaleku).

Martxoaren 24ra arte:

- **"QUO VADIS, EUROPA"**, Leire Kareagaren artelanak. (Portalea).
- **"ZURE BARATZEAN HAZTEN DEN GUZTIA"**, Andrea Alvarezaren artelanak. (Portalea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **3an:** 20:00
- **4an:** 19:00

“Negu hurbilak”
DRAMA



2023/Euskal Herria/93'
Zuzendaria: Colectivo Negu
Aktoreak: Jone Laspiur
2011n kokatua / Konfliktuaren amaiera / Gazte baten ihesaldia

2 ARETOA

- **2an:** 19:30, 22:30
- **3an:** 17:00, 20:00
- **4an:** 19:30

“La sociedad de la nieve”
DRAMA



2023/Espainia/144'
Zuzendaria: J.A. Bayona
Aktoreak: Enzo Vogrincic, Agustín Pardella, Matías Recalt
Biziraupena / Gertatutakoa

1 ARETOA

- **2an:** 16:00, 19:15, 22:30
- **3an:** 16:30, 20:00 (Antzokia)
- **4an:** 19:30 (Antzokia)

“Dune: Parte Dos”
DRAMA



2024/AEB/166'
Zuzendaria: Denis Villeneuve
Aktoreak: Timothée Chalamet, Zendaya, Rebecca Ferguson
Zientzia-fikzioa / Sekuela

ANTZOKIA

- **2an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **3an:** 17:00

“Museoaren zaindaria”
ANIMAZIOA



2023/Errusia/83'
Zuzendaria: Vasiliy Rovenskiy
Komedia / Katuak / Familian ikustekoa



TAPIZARIA + AUTO GARBIKETAK
Urtzi Antxustegi (688 649 837)
09:30/19:00 **EROSKI-n**




Zure publizitatea herriko aldiakarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus




Udalak deitutako bilera batera joan naiz. Erdaraz ari dira, baina nik euskaraz egin nahi dut

Ez dakit nola jokatu... euskaraz egin dezaket? Zer egingo dut?

Bai, noski! **ASTINDU** kanalean argituko dizute zalantza. Oso erraza da!

Deitu: 943 708426
Idatzi: eibarrenakeba@gmail.com
Bete webguneko formularioa
Idatzi Whatsapp: 688 69 85 66

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak **JON**, txapeldun! Atzo 8 urte bete zenuazelako. Eta, gaiñera, zeure egunian! Patxo bat famelixaren partez.



Zorionak, **MARA**!! 10 urteee!! Zeu zara guztia gu aurrera juateko. Maite zaittugu, laztana!



Zorionak, **AIORA**! Hoberena zara, Txispita! 15 urte beteko dozuz astelehenian!! Patxo haundi bat amatxo, aitaixo eta Oihenarten partez.



Zorionak, **JON**, astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta. Musu bat etxeko guztien partetik.



Zorionak, **NILE**! Oso ondo ospatu gaur 9. urtebetetzia. Maite zaittugu. Patxo bat Xaneten partez!



Zorionak, **XANET**! Gaur 9 urte! Segi holan eta asko disfrutau. Maite zaittugu. Patxo bat Nilen partez!



Zorionak, **UXUE**!! Zapatuan 4 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, zure "pototen" eta Jareren partez!!



Zorionak, **JULEN**!! Gaur 5 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu zure irribarriarekin gu alaitzen. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MARTIN**, zure 9. urtebetetzian! Ikaragarri maitte zaittugu! Aita, ama eta Libe.



Zorionak, **AITOR**, zure 10. urtebetetzian!! Martitzenian bi zifrak estreñatu zenuduzen, mutil haundi!! Patxo pilla bat.



Zorionak, **EUKEN**! 26xan 11 urte bete dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, zure arreba Paule eta lehengusu Xuhar eta Julenen partez.

FUNEUSKADI
Grupo Asistia

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p> <p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
--	--

Jose Maria Telleria Alberdi

“Beti izan zara taldekoentzat eredu, bai kobazuloen iluntasunean, baita eguneroko egun argitan ere”

GOGOAN ZAITUGU
EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ESPELEOLOGIA BATZORDEA

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Errioxan, Bañareseko kanporean, mobilhome salgai (9,20x3,70 m). Itxitako portxe handia (10x3,50 m) eta 30 m karratuko lorategiarekin. 637587811.

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokala salgai Legarreko dorrean, egokia komertziorako edo garaje bezala erabiltzeko. 626719802 eta 659504114.
- Abontzan garaje itxia salgai. 626528738.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Irakasle ikasketak egiten diharduen neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. 629360924. Naiara.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Esperientzia. 642577823.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko. 634651895. Anabel.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. 673764776.

- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia handia sukaldari, zaintzaile eta garbitzaile bezala. 641196232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibar eta inguruan. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 641417815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, bulegoak). 604392529.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613395684.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta obretako azkenak jasotzeko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Interna. 661181824.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 643398596. Maribel.
- Emakumea eskaintzen da etxean lan egiteko. 654154301.
- Emakumea eskaintzen da etxean lan egiteko. 631803496.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. 612202116.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Baita asteburuetan ere. 611215176.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar dugu igandetarako. Lanaldi edo jornada zatitua. Bidali curriculum: acitain@gmail.com
- Interna behar da nagusia zaintzeko. Paperekin. 687114707.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kanping-denda kanadiarra salgai. 4 lagunentzako. 30 euro. Ia berria. 943701013 / 659538158. Iñaki.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. 688624326.



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

Maiatza/Ekaina/Uztaileko **DEIALDIA**
AZTERKETAK Eibar, Durango eta Arrasaten

MATRIKULAK
Martxoak 1 – Apirilak 11

AZTERKETA	DATA	PREZIOA	AZTERKETA	DATA	PREZIOA
STARTERS	ekainak 8 (larunbata)	68€	CAE	ekainak 15 (larunbata)	205€
MOVERS	ekainak 8 (larunbata)	70€	CAE	uztailak 6 (larunbata)	205€
FLYERS	ekainak 8 (larunbata)	73€	CPE	ekainak 8 (larunbata)	215€
KET (For Schools)	ekainak 8 (larunbata)	99€	PET	maiatzak 11 (larunbata)	106€
PET (For Schools)	ekainak 8 (larunbata)	106€	FCE FS	ekainak 15 (larunbata)	195€
FCE	ekainak 1 (larunbata)	195€	FCE FS	ekainak 22 (larunbata)	195€
FCE	ekainak 15 (larunbata)	195€	FCE FS	ekainak 29 (larunbata)	195€

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	English Square	648 26 82 06
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59		Ibaizabal Ikastola	94 621 58 77
	Target Schools of English	607 83 36 13	MARKINA:	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
ERMUA:	Akeriei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	ILS	943 74 40 40	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
ONATE:	Sounds Great	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



errigora.eus

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaroz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontozian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com